

noaua

"EUSKARA SUSTATZEKO LEGE-ZIMENDUA HIGATZEN ARI DIRA AUZITEGIAK"

UEMA "lege esparru eraberritua" borrokatzearen alde agertu da / 16



NOAUA



NOAUA

Ane Ibarгойen: "On Zientziaren web orrian ikus daiteke bideo saritua" / 06



NOAUA

Andatzen indusketak egiteko boluntarioak behar dira / 08



ENLOZU FOTOGRAFIA

Xabi Cardenas: "Futbolak leku asko bisitatzeko aukera eman dit" / 14

Zubietako Herri Batzarrak legealdi berriari ekin dio / 12



'Herrira begira' gehigarria





USURBIL
OPTIKA

2x1

**PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN
LENTE PAREA
DOAN!**



943 37 02 69
ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



**ATXEGA JAUREGIA
JATETXEA**

· EGUNEKO MENUA: (asteleheneretik ostiralera) · EGUNEKO PLATERA
· ASTEBURUKO MENUA · KARTA · RAZIOAK · OGITARTEKOAK · PINTXOAK..



Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150



noaua.eus

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, argazkiak, bideoak, agenda, zorion-agurrak, eguraldia, aldizkaria online...
Klik batean den-dena ikusgai zure eskuko telefonoan, tablet-ean edo ordenagailuan.



www.noaua.eus

Egurtzegi inauguratu dute, zaintzadun etxebizitzaren auzoa

Asteartean inauguratu zuten Egurtzegi, Kalezarren kokaturiko etxebizitzaren auzune berria.

Egurtzegik Eskandinaviako erreferentziazko ereduari buruz urteetan egindako ikerketetan eta Matiak 10 urte baino gehiagoan jasotako esperientziak, ikaskuntzak eta ebidentziak ditu oinarri, pertsonarengan oinarritutako arreta-ereduaren printzipioak garatuz.

"Etxean bezala"

Hauen diseinu arkitektonikoak bateragarria egiten du bizitegi-eredua: "etxean bezala" bizitzea bermatuko duten espazioen modulazioa, eta etxebizitzari buruzko kontzeptuak sartzen du, gelarena ordezkatzeko duena.



Usurbilgo Udala, Matia eta Foru Aldundia batu ziren inaugurazio ekitaldian.

Usurbilen eraikitzen ari diren zaintzen ekosistema berriaren barnean txertatua dago Egurtzegi. Inaugurazioa aldizkari hau inprentara bidaltzeaz

genuela izan zenez, Kalezarren kokatuta dagoen auzune berriari buruzko xehetasun gehiago eskainiko ditugu datorren alean.

Garbigune mugikorra, Usurbilgo kaxkoan

Uztailaren 13tik aurrera, garbigune mugikorra Usurbilgo kaxkoan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerrabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Uztailaren 20an osteguna, garbigune mugikorra Aginagara eramango dute.

Uztailako ikastaroak KzGunean

Uztailak 12-13
9:00-11:00 "Editatu bideoak zure Smartphonearekin".

Uztailak 14-28
9:00-11:00 "Google Aplikazioak zure Smartphonean".

Informazio gehiagorako:
tutor.usurbil@kzgunea.net

Ziortzako kanpaldiari lotutako oharra

Abuztuaren 5ean larunbata, "kanpaldiaren desmuntaiaren egunean zuen laguntza beharrezkoa izango zaigu. Prest bazaude bidali mezu bat ziortzakanpaldia@gmail.com helbidera zure izen-abizenak, telefonoa eta kotxea ekarri dezakezuen ala ez adieraziz. Gazteak ere etor daitezke".

Udako oporren aurreko azken NOAUA! aldizkariak

Eskuartearen duzuen honez gain, beste aldizkari bat plazaratuko dugu hilabete honetan: uztailaren 21ean. Udako oporraldi aurreko azkena izango da. Argitalpen honetarako oharrak hilaren 17a baino lehen helarazi behar dituzue erredakzioa@noaua.eus posta helbidera.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkarte@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibildidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



ALAZNE ARRUTI

Etorkizunari

Urteko egunik luzeena iragan dugu ohartzera. Eta egiaz, ez dakit nola heldu garen udaren atarira. Pixkanaka, gorputzak ere nabaritu du argitasunaren ugaritasuna. Etxe ondoko marrubi landare berriak ere, gorritz pizten hasi dira pixkanaka. Iaz zakartutako errukularen haziak, lurretik elikatzen. Tomate txerri bakanak ureztatu eta sokaz lotzen. Etxean sartutako lehen kala bulboek ere, lurra zulatu dute gorantza nagusituz. Eta dagoeneko loratuko ez zirenen ideia, bete-bete lehertu dute lore zurien edertasunaz.

Oroitzen dut behin, haurra nintzela, plazan lore koxkor laranja eta horiak banatzen aritu zirela. Garai hartan, lehen aldiz sentitu nuen, nire kasa landare bat zaintzearen magia zer nolakoa zen. Egunero joaten nintzaion bisitan, orduen artean jazotako aldaketak miatzera. Erritual moduko bat bilakatu zela esango nuke. Eta baserrian bizi izanagatik, soilik nirea zen partzela bat topatu nuelako izan zela esango nuke. Ordutik, nire barruko haurra, ia egunero darabil atzera eta aurrera ereindako ororen milimetro apur bakoitza errebisatzen.

Nire partzela topatzearen gaiari dagokionez, oraindik



"Gogoan dut nola bizi izan nituen orduko San Joan gauak".

horretan nabilela esango nuke. Bizitzan, orokorrean. Izan ere, hirugarren belaunaldiko ustezko baserri (tar/dun) aren txapeletik, nire txokoa egiteko lehen urrats baldarrak ematen hasi besterik ez naizela egin sentitzen dut.

Bitxia dirudien arren, etxetik joan eta baratzean aritzeko oso mugatua zegoen etxe batera bizitzera joan nintzenez ekin nion gaiarekiko gerturatzeari. Gela zuria bizitzeko Poto

"PIXKANAKA, GORPUTZAK ERE NABARITU DU ARGITASUNAREN UGARITASUNA"

landarearen berdearengana jotzean. Etxearen hormaren kontra, zirrikitueta, piper landareak sartzen hastean. Loreontzietan letxugak eta abarrak hazten ikustean. Nire buruari galdetuz, benetan zerk aldentzen ote ninduen, koskortzen ikusi nauen lurra ereitearengandik.

Atzera begiratzen hasi eta pentsatzen hasi naiz, ea zer nola oroitzen nuen garai bateko baserria, txikia nintzeneko begiradatik. Nola bizi izan nituen orduko San Joan gauak adibidez. Iluntasuna etortzen zait nagusiki. Argitasuna ospatuagatik, arratsaldeko argia irensten duen gauaren ilun ederra. Amonaren amantal urdin laukidunaren eta eskuen testura, bizipen eta lanez akituak. Sasi eta adar zakarretan zakarrenean pila handi bat belardia zanpatzen. Eta urduritasun eta inurridura moduko bat, sabelaldean. Aro berri baten etorrerak sortzen duten gisakoa.

Eta aurten ere sentitu dut, aldaketak beharrezkoak direla. Aldaketa beharrean gaudela. Eta hemendik urte batzuetara, mundu aldrebes hau aldatzen lagundu dutenak, gu geu izan garela esan nahiko nioke etorkizunari.

Lanbide Heziketan matrikulatzeko garaia

2023-24 ikasturterako aurre-matrikulatu zirenek matrikulatzeko garaia izango dute egunotan. Uztailaren 13an behin betiko plazen esleipena kaleratuko dute. Biharamunean, hilaren 14tik 18ra eman ahalko da izena. "Fase honetan, lehen esleipenean bere lehenengo aukera lortu dutenek bakarrik egin dezakete matrikula", ohar-tarazi dute eskolatik.

Informazio gehiago:

lhusurbil.eus
943 36 46 00.

Posta bidez bozkatzea eskatzeko azken aukera

Ostegun honetan, uztailaren 13an itxiko dute posta bidez bozkatzea eskatzeko epea Correosen. Dokumentazioa jaso ahala, hilaren 20ra arteko epea izango da botoa modalitate honetan emateko. Uztailaren 23an izango dira Espainiako Gorteetarako hauteskundeak.

Baterajotzearen herri aurkezpena

Euskal Herriko Neska* Gazteek urriaren 13tik 15era Usurbilen egingo duten Baterajotzea herri mailan aurkeztuko dute ostiral honetan bertan, uztailaren 14an, arratsaldeko 19:30etan Mikel Laboa plazan. Herritar eta eragile oro gonbidatu dute hitzordura.



IKA-MIKA

Itzultzeko garaia heldu da**LAUBURU USURBILGO ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSA**

Lau urte pasatxo igaro dira gure taldearen ibilbidea etetea erabaki genuenetik. Kideen ezintasunak, zalantza ez beteriko egoerak, aurrera egin ezina... Arrazoiz ezberdinengatik, bidean ez jarraitzearen hautua egin genuen. Heldutasunetik harturiko erabakia izan zen, denbora luzez hausnarturikoa. Ez dugu uste akatsa izan zenik, momentuak eta egoerak horixe eskatzen zutelako. Egun hartan, Usurbilen izan den Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa ofizial bakarra desagertu zen.

Gerora, beherakada egoera bat bizi izan dute erraldoi eta buruhandiek. 2019ko festak arras ezberdinak izan ziren, baita konpartsako kide ohientzat ere. 2020ko Covid-19ak sorturiko pandemiarekin, ospakizun ofizialak bertan

behera geratu ziren bi urtez. Erraldoi eta buruhandien etorkizuna gela beltzera kondnaturik zegoela zirudien.

Zoriak ordea, beste bide batetik eraman ditu gure herriko pertsonaia maitatuenak. Egoeraren hausnarketa eta norabide aldaketa bat egiteko hautua egin zuen Usurbilgo Udalak. Mahai inguruan eseri eta negoziaketa prozesu bat abiatu zen, konpartsaren egitura eta izaera berri bat adosteko. Gauzak honela, 2023ko Santxabel jaietan itzuli da, ofizialki, Usurbilgo Lauburu Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa, indar betez.

Lerro hauen bidez, gure ibilbidea berrabiarazi dugula adierazi nahi dugu. Baina ez hori bakarrik, hainbat erakunde eta pertsonen eskerrak eman nahi genizkioke. Usurbilgo Udalari, gureganako konfiantza izateagatik. Bereziki, berriki kargua utzi duen Luken Arkarazo kulturako zinegotziari, bera

izan baita konpartsaren itzulera gauzatzeko giltzarrietako bat.

Zumarte Musika Eskolako trikitilariari, dultzaineroei eta Usurbilgo Txistulari Taldeari, gure emanaldiei musika berezia jartzeagatik. Aurreko egunean parranda eginda ere, erraldoi eta buruhandien azpian izerdi patsetan aritu diren gazteei, eurak direlako konpartsaren oinarria. Xuban eta Markel gaztetxoei, erraldoi txikiak bizkarrean hartuta kalean gora eta behera ibiltzeagatik, gure etorkizuna ziurtatuz. Buruhandiak konpontzeko lan ikaragarria hartu duen Jesus Garcia lagunari, egoera zailetan profesionaltasuna erakutsi duen artistari. Eta batez ere, Usurbilgo herriari, gure segizioetan kaleak betetzeagatik. Maite zaituztegu!

Itzuli gara eta indartsu gatzoz! Gora Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandiak!

Musukorik erabili beharrik ez da izango

Espainiako Gobernuak amaitutzat jo du ofizialki covid19ak duela hiru urtetik eragindako osasun krisialdia. Horrekin batera, musukoen erabilera derrigortua ezabatu du. Azkenaldian beharrezkoak ziren farmazietan, osasun zerbitzuetan edota gune soziosanitarioetan. Aurrerantzean sintomak izanez gero, edota pertsona zaurgarriekin egoteko erabilera aholkagarria baino ez da izango.

Datozen jaietako datak

Usurbilgoak igarota, ohi bezala uda giro beteko hurrengo festak ate joka ditugu. Jai batzordeek egitarauak zehaztuta dituzte dagoeneko. Datoren asteko NOAUAn eman go ditugu jaien inguruko xehetasun gehiago:

Zubietako herri jaiak:
uztailaren 24tik 31ra.

Urdaigako festak:
abuztuaren 3tik 6ra.

Atxegaldeko jaiak:
abuztuaren 25etik 27ra.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Bordaberri 3, behea 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus

Enegarren sutea erraustegian

Enegarren ezbeharra Zubietako erraustegian. GuraSOSek berri eman duenez, sutea izan zen uztailaren 4an goizez, aipatu tratamendu plantan. Bertako hobian hain zuzen, aipatu taldetik zehaztu dutenez.

Argibide eske

GuraSOSek azaldu duenez, "GHK eman digu bere bertsioa: sute txiki bat bolumen handiko hondakinen hobian. Horrek esan nahi du mankomunita-

teren bateko norbaitek bota duela material sukioia. 07:45etarako piztu dela sutea eta 10:00etarako kontrolatuta zegoela. Erraustegiko baliabideekin itzali dutela. Keaz aparte, beste kalterik ez dela izan".

Horren aurrean, zenbait argibide eskaini nahi izan zituen. "Ez da zilegi besteei errua botatzea bertan sartzen diren hondakinen kontrola beraien ardura denean. Zer esan nahi du ez dagoela sarrera kontrolirik?



Uztailaren 4ko sutea. ARGAZKIA: GURASOS

Deskontrola? Ez da gainera lehen sutea, gutxienez laugarrena da".

Gaineratuenez, "bolumen handiko fosoan industrialak eta arriskuan gehien duten hondakinak daude eta erre dira, bi ordu baino gehiago kutsadura oso potenteko kea sortuz. Ezin da esan kea aparte kalterik ez dela izan, kaltea ke hori denean. Edo biztanleen osasuna eta segurtasuna ez al da kalte nahikorik? Jakin nahi dugu zer material erre den eta zer substantzia arriskutsu isuri diren eta zergatik ez zaion biztanleriari abisua eman eta baimenak behartzen duen bezala 112ra deitu ote duten".



'On Zientzia' lehiaketan mundu zabaleko jendeak hartu zuen parte. Eskubikoa da Ane, saria eskuetan duela. ELHUYAR

“Jakín izan banu, gehiago landuko nukeen nire bideoa”

ANE IBARGOYEN ARKITEKTOA

'Mina edo pikantea?' izeneko ikusentzunezkoari esker, euskarazko lan onenaren saria jaso du 'On Zientzia' bideo-lehiaketan. Ekimen honek dibulgazio zientifikoa sustatzea du helburu.

Elhuyarrek eta DIPCK hamahirugarren urtez antolatuta duten 'On Zientzia' bideo-lehiaketak baditu sarituak eta euskarazko bideoirik onenaren kategorian “Mina edo pikantea?” lanarekin Ane Ibarгойen arkitekto usurbildarra izan da saritua. NOAUarekin izan da sariaren nondik norakoak partekatzeke.

“Mina edo pikantea” lanarekin irabazi duzu 'On Zientzia' Elhuyarren bideo lehiaketa. Zer erakutsi nahi izan duzu bertan?

Aspalditik ezagutzen nuen Elhuyarrek eta DIPCK antolatzen duten lehiaketa hau. Beti izan dut buruan zerbait egitea, baina denbora falta

dela eta bestelako kontuengatik behin ere ez nintzen animatu. Aurten, ordea, Ilustrazio Zientifikoko masterra egin dut eta bertan animazioa landu dugu.

Zer egin duzue masterrean?

Gai zientifikoak lantzen ditugu panelak eta kartelak eginda, datuen errepresentazioa, museoetako iruditeria, naturan aurki ditzakegun bestelakoak... 3D animazioa ere barnebiltzen du masterrak. Arlo asko ukitzen dituen master zabal bat da. 3D animazioaz aritu ginen pare bat astetan eta bertan ikasitakoa praktikan jarri nahi nuen lehiaketako bideoaren bidez. Epe-

muga baino lau egun lehenago hasi nintzen lanean. Horrelako harrera izango zuela jakín izan banu, gehiago landuko nukeen. Alderdi asko sakonago landu nahi nituen

“JANARIA PIKANTE BILAKATZEN DUEN MOLEKULARI BURUZKOA DA LAN SARITUA. ZERGATIA IKUSPUNTU ZIENTIFIKO BATETIK AZALTZEN SAIATU NAIZ”

edo sakontzeko aukera ikusiten nuen, baina denbora faltaren ondorioz, ezin izan nuen.

Eduki aldetik, zein gai zientifiko landu duzu?

Dibulgazio zientifikoa egitea da helburua. Anaia txikiari ideiak eskatu nizkion zerbait landu ahal izateko eta hark proposatu zidan gaia. Janaria pikante bilakatzen duen molekulari buruzkoa da lana. Bideoan ikuspegi zientifikotik janaria zergatik den mina azaltzen du edo zerk ematen dion min gustu hori. Anaiak informatika eta matematika ikasketak ditu, baina gai hauek beti gustatu izan zaizkio.

Arkitektura ikasi zenuen zuk. Zer zerikusi du bideoaren gaiak arkitekturarekin?

Masterragatik izan da, batik bat. Hamabost ikaskide gara eta erdiak Arte Ederretatik edo Diseinu Grafikoko ikasketetatik datoz eta gainontzekoak, Biologia, Biomedikuntza, Ingeniaritza eta Arkitekturatik gatoz. Alderdi teknikoa gehiago ezagutzen genuen zientzietakook. Arkeologia landu dugu, adibidez. Arkitektura ikasi dudanez, ikuspegi osoagoa daukat biologia ikasi dutenek baino. Irakasleak ere Arte Ederretatik etorriak dira batzuk ikuspegi teknikoa lantzeko eta besteak Biologiatik.

Nolatan sartu zinen master horretan?

Amaren lankide batek Teknopolisen 3D irakasgaia ematen zuela esan zidan eta arkitektura ere arteak zein zientziak lotzen du. Arkitekturako ikasketetan lehen mailan eskuz lanen bat edo beste egin genuen, baina hortik aurrera gehiagorik ez. Faltan botatzen nuen alderdi hori eta amaren lankideak plaza bat libre zegoela esan zigun eta neuk hartu nuen.

Arteek eta zientziek oso arlo urrunak eta ezberdinak dirudite.

→ Bai eta horregatik norbaitek lotu behar ditu bi mundu horiek. Museografia asko gustatzen zait, museotako diseinu edo antolaketa hori. Etorkizunean ez dakit bide horri helduko diodan, baina momentuz Master Amaierako Lana (MAL) egin behar dut ezer erabaki aurretik. Orain autonomoa naiz eta lagun batekin arkitektura lanak egiten ditut. Hori ez dut utzi nahi. Jende askok beldurra dio enkarguz lan egiteari, autonomo egin beharra baitago horretarako. Badaukat erraztasuna zentzu horretan, jada autonomoa bainaiz. Lanak iristen zaizkidanean handik edo hemendik hartuko ditut eta joango naiz bidea egiten.

Marrazketan eta dantzan ere aritzen zara.

Aurten asko kostatu zait lana eta ikasketez gain, zaletasunak uztartzea. Enkarguz ez dut ezer hartu momentuz, baina arkitektura ikasketak egiten ari nintzela Susanari laguntzen aritu nintzen pinturan, Santuenean ematen klaseak ostiraletan eta, norbait behar zuen bitartean, horretan aritu nintzen.

Master Amaierako Lana egiteko oraindik erabat zehaztu gabe daukagu, baina printzipioz, Iruñeako planetario-kupularen proiektua egingo dut. Kupulan proiektatzen dituzten konstelazioak egingo ditut nik. Kontua da 88 konstelazio direla eta ilustrazio guztiek MAL bat egiteko gehiegi zirela esan zidaten eta aukerak ikusten ari gara zenbat orduko lana izan daitekeen MALa egiteko beharrezko denbora eta zenbat konstelazio egiteko eman



Arkitektoa da ogibidez, baina bestelako diziplinak ere menderatzen ditu. NOAUA

dezakeen denbora horrek, eta besteak, agian, enkarguz hartuko nituzke. Azken finean, lan hauek familia batekoak dira eta pertsona berak eta estilo berez egin beharrak daude.

SARI HONI ESKER 2.000 EURO ESKURATUKO DITU ANE IBARGOYENEK

Oraindik hori dena behar bezala zehaztu beharra daukagu. Lan oso berezia da MAL batean egiteko eta askotan horrelako proiektuak egiteko aukera dagoenik ere ez dugu jakiten.

"ON ZIENTZIAREN WEB ORRIAN IKUS DAITEKE BIDEO SARITUA"

Dantzan ere jarraitzen dut nire denbora librean Donostiako Goizaldi taldean eta aurten 75. urteurrena dugu. Han jarraitzen dut, baina egia esan, behar baino gutxiago egiten dudan irudipena daukat, baina horretan ere dihardut.

Datorren urtean ere 'On Zientzia' bideo lehiaketan parte hartuko duzu aukera izanez gero?

Bai, zergatik ez. Denbora gehiagorekin hartu beharko nuke eta gaia gehiago landu, baina aukera egokia suertatzen bazait, aurrera egingo dut.

Hiru sari ezberdin banatu dituzte. Euskarazko bideoirik onena zuretzat izan da.

Hori da, hiru sari banatu dituzte, bana arlo bakoitzarako. Lehenik eta behin, bideoirik onenaren saria banatu zuten. Bideo pila batek hartu zuten parte eta mundu zabaleko jendeak hartu zuen parte, gainera.

3.000 euroko saria eta bideoa Teknopolis saioan eskaintzea irabazi zituen irabazleak, ETB1 zein ETB2 kateetan.

Hurrengo saria, eta nik irabazi nuena, euskarazko bideoirik onenaren saria izan zen. 2.000 euro irabazi nituen eta Teknopolis saioan bideoa jartzea.

Azken saria gaztetxoena izan zen, 18 urtez azpikoen maila.

Teknopolis saioaz gain, beste nonbait ikus al daiteke 'Mina ala pikantea?' bideoa?

On Zientziaren webgunean aurtengo eta aurreko edizioetako bideo guztiak daude ikusgai, eta jakina, tartean nirea.

Antxeta
 TABERNA
 egunero irekitzen dugu!
 eguneko menua · asteburuko menua
 oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
 paellak enkarguz!
 943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usturbil.

ZALDIGAIN
 ERREMENTARIA
 • Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
 • Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
 www.zaldigain.com · info@zaldigain.com
 Tfno.943593303 · Mugikorra: 677463867

Zuen
 publizitatea
 hemen
 943 360 321
 publizitatea@noaua.eus


ADA
 -MASAJEAK-
 633 36 22 33



Aranzadirekin batera, auzolanean ari dira Andatzen, herri honen iragana bistaraten. ARGAZKIA: ITZIAR ILLARRAMENDI

Herri honen jatorrian auzolanean arakatzeko gonbita

ITZIAR ILLARRAMENDI ETA ASIER ITURRALDE BOLUNTARIOAK

Aranzadi zientzia elkarteak Andatzen urte luzez egiten ari den indusketa lanetan boluntario gisa ari dira, lerrootan elkarrizketatu ditugun bi herrikideak.

Andatza III Brontze Aroko monumentu megalitiko eta Irigain izeneko erromatar garaiko bizitokia industen ari da urte luzez uda partean Aranzadi zientzia elkarteak. Eta haiekin, beharrezko dituzten bidelagun boluntarioak; tartean, lerrootan elkarrizketatu ditugun bi herrikideak.

Nolatan hasi zineten indusketa lan hauetan parte hartzen?

Asier Iturralde: Duela bost bat urte, Aranzadikoek Andatzen indusketa egiteko boluntarioak eskatzen zituztela irakurri nuen aldizkari honetan. Bitxia iruditu zitzaidan eta probatzeagatik izena eman nuen. Geroztik urtero jarraitu

dut joaten. Giro polita egoten da, interesgarria da egiten dena. **Itziar Illaramendi:** Beti izan dut gustuko arkeologia mundua, eta inbidiaz egon ere bai. Jubilatuta nintzenez NOAUA'n irakurri nuen laguntzaileak behar zituztela, buru-belarri sartu nintzen duela bi urte. Ilusioa egiten dit eta asko ikasten duzu.

Nola ikusi duzue eraldatzen lan-tzen joan zareten eremua?

A.I.: Orain trikuharria dela badakigu, baina hasieran, Txangosta inguruan bi harri ikusten ziren, ingurua landarediak hartua zegoen. Bi harri zutik zeudela ikusten zen. Lehenagotik, batzuk zioten

monumentu megalitiko bat zela. Beste arkeologo batzuk zioten ezetz, besterik gabe zirela bi harri kasualitatez zutik zeudenak. Garbitzen hasi ginenean ikusi zen pertsonen jarritakoak zirela. Bitxia iruditu zitzaidan aldaketa hori ikustea. Hasieran ez zen ikusten tumulu bat zegoela, harri pila bat dagoela inguruan. Horiek guztiak aurkitzeko pro-

"LAN PILA DAGO ANDATZAN. MANTSO GOAZ BAINA BAGOAZ"

zesua oso polita iruditu zitzaidan.

I.I.: Lapurtokietako bi dolmen horiek oso maiteak ditut. Gogoan dut, hogeita urte gutxi izango nituen, inguru hura garbitu zuten. Geroztik urte asko pasa dira eta larraz beteak ziren. Hortik pasatzen nintzenez eremu horrek pena ematen zidan. Duela urte batzuk, Aranzadi eta Udala hasi ziren garbitzen eta aztertzen. Gaur egun, ikusten da nola lurra kentzen goazen heinean pixkanaka agertzen ari diren harri horiek. Lan pila dago. Mantso goaz baina bagoaz.

Zer da zuentzat indusketa lana?

A.I.: Arkeologia, zuloak egin eta gauzak ateratzea baino zerbait gehiago dela ikusi dut. Metodologia bat dute, zientzia bat da. Pausoz pauso, geruzaz geruza joan behar da pixkanaka kentzen. Pazientzia pixka bat behar da baina horrek emaitzak izaten ditu. Zerbait aurkitu baina testuingururik ez baduzu, informazio asko galtzen da. Geruzak esaten dizu noizkoa den; geroz eta geruza beheagokoa izan, zaharragoa.

I.I.: Beti gustatu izan zait, nondik gatozen eta nora goazen ezagutzea. Duela 4.500 urteko kontuez ari gara, oilo ipurdia jartzen zait. Alde horretatik asko eta asko erakartzen nau, gustura sentitzen naiz lan hori egiten. Nire barrutik sentitzen dut jatorri hartara ni ere zerbaitek lotzen nauela. Hunkitu egiten naiz.

Zer egin duzue urteotan?

A.I.: Batetik, bi trikuharrien egiturak bistaratu eta nola eraikita dauden ikusi. Bestalde, agertu dira gauzak ere erakusten digutenak nola bizi zen garai hartako jendea. Adibidez, ikusgarrien aurkitu duguna lepoko baten ale handi bat da. Harri landu bat, bi aldeetatik zuloa eginda zeukan, soka pasea izango zuen, norbaitek lepoan erabiliko zuen. Pentsatzea duela milaka urte

→ norbaitek lepoan ibili zuen gauza bat hor aurkitu dugula, oilo ipurdia jartzen du. Pozgarria da.

Itziar Illarramendi: Bi gune desberdinetan aritu gara. Megalitoetan belauniko jarri, gure paletatxoekin pazientzia osoz lurra kendu, kontu handiz harriak mugitu gabe, azken batean egitura aztertzen gabiltza. Iaz hasi ginen ondoan dagoen tumuluan. Bien artean zer harreman dagoen ikusi nahi dute. Gero Irigain dago, erromatar garaiko kokaleku bat da.

Asier Iturralde: Indusketa lan hauetako zuzendarietako batek, Manu Quevedok, lekua horretarako ona zela pentsatu zuen. Zerbait agertuko zelakoan zegoen. Zulo txikiak egin zituzten. Lehenengoetan jada zeramika zatiak agertu ziren. Bista handia behar da esateko garai hartako jendea-ri leku hau ona irudituko zitzaiola.

I.I.: Lautadatxo bat da. Etxetxo bat izango zuten, ganadua, garai hartan behiak batez ere.

A.I.: Leku ona da. Behean, errioan meandro modukoa, goiko kaxkoan ordekan erriatik gertu baina era berean babestua. Agertu dira garai hartako borda edo antzeko baten oinarria izan daitekeena. Familia bat edo gehiago bizi ziren inguruan, zerealak eta behiak zituzten, hori da uste duguna behintzat.

I.I.: Haiek Irigaintarrak izango ziren, baina ziren hiritar erromatarrak. Haien zergak ordaintzen zituzten, behar bazituzten gizonek gerrarako prest egon behar zuten.

A.I.: Behe Inperio garaia zen, 3. eta 5. mendeen artean. Euskal Herria jada Erromako inperioaren parte zen. Etxola egurrezkoa zen, lokatzarekin pareta antzekoak eginda. Sua egin bada leku horretan, erretako lokatza ohikotik ezberdintzen da eta zati batzuk agertu dira. Zeramika puskak agertzean eta ikustean pieza berdinen bi zati direla, noiz-



"Bost mila urtean edo jendea bizi eta lan egiten izan da Andatzan". ARGAZKIA: ITZIAR ILLARRAMENDI

bait hori eltze bat izan zela, zirrara garria da.

Urteotan espero zen halako aurkikuntzan izatea? Zer diote Aranzadikoek?

I.I.: Haiek pozik daude. Urteotan azaldu den material kopurua pozik egoteko modukoa da. Horregatik jarraitu nahi dute.

A.I.: Bost mila urtean edo jendea bizi eta lan egiten izan da Andatzan.

Zer ekarpen egin dizue esperientzia honek?

I.I.: Batetik, auzolana. Beti esaten ari gara galtzen ari garela, baina badaude aukerak. Abuztua eta irailean dira indusketa lanak, beharbada egun batzuk har ditzakegu gazteek eta ez hain gazteek. Ez da lan zaila. Bestetik, nondik gatozen ezagutzea garrantzitsua da.

Altxor kulturala dugu Andatza. Lau usurbildar bagara zereginotan. Merezi du.

"AGERTU DA GARAI HARTAKO BORDA BATEN OINARRIA IZAN DAITEKEENA"

A.I.: Trikuharriei eta arkeologiari buruz dakidan ia dena hor ikasi dut, lehen ideia handirik ez nuen.

Herri honen iragana ari zarete azaleratzen?

I.I.: Aurrekoak izan direlako gara eta ondorengoei ere utzi nahi dizkiegu aztarna haue-
tatik ateratzen ditugun azterketatxo horiek. Transmisio hori oso garrantzitsua da, iruditzen zait egin behar dugun lana dela. Egin dezagun guztion artean.

Are gehiago, iragana azaleratzen ari den honetan ez dadila haria eten, ezta?

A.I.: Jendeak ondarea ezagutzen badu nekezago kaltetuko da, edo neurri gehiago hartuko dira babesteko.

Parte hartzeko zer baldintza bete behar dira?

I.I.: Ilusioa eta lana egiteko gogoia. Oso giro ona dago gure artean.

"10 LAGUN IZANGO BAGINA, EGITURA BISTARATUAGOA EGONGO ZEN"

A.I.: Horrelakoetan, garrantzia ematen zaio herriko jendea izateari, ondare horren eza-
gutza transmititzeko eta eza-
gutza hori herrian bertan geratzeko.

I.I.: Lauzpabost lagun izaten gara. Hamar izango bagina, honez gero gure egitura hori askoz bistaratuagoa egongo zen.

Zer da zuentzat Aranzadi zientzia elkarte? Zer ikuspegi zenuten lehen eta orain elkarte horri buruz?


I.I.: Aranzadi niretzako, arkeologia munduan pisu handiko elkarte da. Aranzadi ezagutzen nuen beraien artxibotara joan naizelako eta gerra garaiko gorpuekin egiten ari diren lanagatik. Orain Aranzadi niretzako zerbait gertuko da. Aranzadi niretzat Andatzako zaititxo bat da.

A.I.: Irulegiko eskuarekin famatua egin da baina eskua agertu da horra joan direlako arkeologoak, boluntarioak eta bila aritu direlako. Indusketa txiki asko daude eta ez zekiten non zer agertuko zen. Andatzaren kasuan, indusketa lanon zuzendari Manu Quevedok 20 urte daruma zereginotan.



IKUSI-MAKUSI


Zer ikusten du piratak bere kataloxatik? Aukeratu irudi ona.



Zeeer?!

Zer ari da pentsatzen balea? Eman marrazkitxo bakoitzari dagokion hizkia eta asmatuko duzu.

Horretarako, erabili beheko hizki-marrazki hiztegia.




HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



ENGAINAGARRIAK

Txanpon eder hau goiko altxorretik atera da. Ondoko puskei erreparatu eta esan zeintzuk diren onak eta zeintzuk imitazio txar batekoak.

Soluzioak 13. orrialdean.



Bost itsaslapur hauek sekulako altxorra dute zain, baina bik besterik ez dute bidea aurkituko. Nortzuk?

ALTxorren bila

SUDOKUA



	U		H	N
N		H		U
		Z	U	
	N		H	Z
	H		Z	U
	Z	N		I

Loroek hiztun fama dute, ezta? Bete itzazu hutsuneak **HIZTUN** hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (H, I, Z, T, U eta N). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



Baietz Hamabi!

Horra hemen bi itsaslapur. Bata bestearen ispilu direla ematen du baina ez dira erabat berdinak. Aurkitu bien arteko aldeak. 12 dira guztira.



Bikotea

Loro hauen artetik bat bi aldiz ageri da. Zein da?



Haritz Arrizabalagak agintea sinbolizatzen duen zumea Usurbilgo alkatearen eskutik jaso zuen unea. NOAUA!

Herri Batzar berria eratu dute Zubietan

Maiatzaren 28ko emaitzetatik Herri Batzar berria eratu zuten iragan uztailaren 5ean Zubietako Kaxkapen egin zuten ekitaldian. Lan talde berriarekin batera, Usurbilgo eta Donostiako alkateak ere hitzorduan izan ziren.

Legealdia bitan egoten da banatua Zubietan. Horregatik, Usurbil aldekoa izango da Herri Batzarreko alkatea 2023-25 urte artean, Haritz Arrizabalaga Garmendia. Donostia aldekoa, Jon Andoni Arroyo Arozena 2025-27 urte artean. Biak bigarrenez izango dira alkatetzan. Bakoitza bere udalerriko udalekin egin beharreko koordinazio eta jarraipen bilerez arduratuko da. Haiekin hiru kide berri oraingoan: ekonomiaz arduratuko da Nekane Zaldia Iturrioz, komunikazioaz Maider Izagirre Txoperena eta Josune Iparragirre Tolaretxipi idazkaria izango da. "Aurrera begira ditugun erronkei aurre egiteko talde sendoa osatu dugula sentitzen dugu eta zuen babesarekin aurrera egingo dugula", ziurtatu zuten, egindako ekarpe-

nagatik aurreko legealdiko lan taldea goraiatu eta eskertu zuten Iparragirrek.

"Zubieta bere osotasunean ulertzea"

Oraingo honi, "ilusioz berri-tua eta begirada berriekin" ekingo diote. "Taldea berria osatzen dugunok Zubietak dituen beharrak eta aurrera begirako asmoak partekatzen ditugu eta horiei begira jarri gara lanean jada", adierazi zuten alkate hautatu berriak. Datozen urteei begirako erronka zenbait aipatu zituen. "Hasteko bizilagunon eta Zubietako eragileon sarea sendotu, elkarlana sustatu eta herria bizitzea da gure gogoia eta begirada horretatik egingo dugu lan, taldetasuna eta kohesioa indartuz, herriko talde eta elkarte ezberdinen

arteana". Lankidetzaren horretarako auzolanagatzat jo zuten alkate berriak. "Auzolana tresna oso egokia dela uste dugu eta Zubietak dituen zenbait beharrei auzolanean erantzutea da gure asmoa, Zubieta herritarren artean eraiki nahi dugulako". Ildo horretan, ziur agertu zen "Usurbilgo eta Donostiako udalek eta Herri Batzarrek borondatea izanez gero, adostasunera iristeko gai izango garela". Horretarako, ordea, ezinbestekotzat jotzen dute

"BORONDATEAREKIN, ADOSTASUNERA IRISTEKO GAI IZANGO GARA"

"Zubieta bere osotasunean ulertzea".

Hirigintza gaiekin batera, errebotea izango dute arreta gune nagusietako bat. Gogorazi zuenez, "Zubietak badu aitortua ez dagoen ondare historikoa XVIII. mendetik jokatzeko den eta asko apreziatzen dugun kirolaz, errebotetaz baizik. Duela urte batzuk pilota elkarteak ondare inmaterial izendatzeko saiakera egin zuten eta berriro helduko dio Herri Batzarrek" gai honi. Prozesu horretan, "Donostiako eta Usurbilgo udalei gurekin batera aritu zaitezten eskatzen dizuegu. Ondareak zaintza dakar eta errebotean kalitatez aritzeko baldintzak adosteko aukera emango du. Irailean ospatuko den Enrike Abril torneora gonbidatuak zaude, bertatik bertara ezagutzeko nahi izanez gero".

Elkarlanerako prestasuna

Hitzorduan zehar, elkarlanerako "prestasun osoa" adierazi zuten Eneko Goiak. "Adierazi nahiko nuke Donostiako Udalaren aldetik prestasun osoa elkarlanean aritzeko". Gogora ekarri zuten duela lau urte obra eta zerbitzuak koordinatu eta eraginkortzeko Herri Batzarrekin eta Usurbilgo Udalarekin adosturiko hitzarmena, "orain berritu beharra duguna".

Adibide gisa baliatu zuten Donostiako alkateak gai hau, lankidetzarako konpromisoa adierazteko. "Derrigorrezkoa zaigu Usurbili eta Donostiarri elkarlanean aritzea zuekin batera", bere esanetan, "helburu bat lortze aldera; herritarren bizitzak hobea lortzen saiatzea", orain arteko bide-tik. "Uste dut horretan saiatu garela azken urteotan", zioen Goiak.

Eskerrak adierazi eta Herri Batzarra osatu zuten kideak zoriondu zituen Gipuzkoako hiriburuko alkateak, "zuen auzokideekin hartu duzun konpromiso horregatik".

Usurbilgo Udalak Zubietarako dituen egitasmoak

Usurbilgo alkateak legealdi berrirako Udalak dituen zenbait egitasmo iragarri zituen Herri Batzarraren eraketa ekitaldian.

Agurtzane Solaberrietak batzarkideak zoriondu eta esker-rak helarazi zizkien "Zubietako Herri Batzarrean parte hartzeko konpromisoa eta borondatea agertu duzuelako".

Legealdi berri honi begira Usurbilgo Udaletik dituzten zenbait egitasmo azaldu zituen, esaterako, aurreko legealdian Usurbilgo HAPOaren testuinguruan "eta guk Zubietan zer?" parte hartze prozesutik eratorritakoak. "Bizikleta eta oinezkoen mugikortasunean oinarritutako ereduaren alde-

ko hautua egin zenuten, eta horretarako, besteak beste, aipatu zen ezinbestekoa zela Zubietara eta Santuenea arteko bidegorria egitea. Gure aldetik esan, zubietarren eskari historiko honi benetan bide ematen saiatuko garela", adierazi zuen Usurbilgo alkateak.


"Zubietara bizia, euskalduna, kolektibitatean oinarritua"
 Prozesu hartan nabarmendutako "Zubietara gune bizi, euskaldun eta kolektibitatean oinarritutako herri bat" izateko




Herri Batzarraren eraketa ekitaldian Usurbil eta Donostiako alkateak izan ziren.

nahiaren haritik, bi proiektu iragarri zituen; batetik, herri ekipamenduaren beharra. Bere helburuez hausnartzeko lan-ketarako gonbita egin zuen. Horrez gain, aurreko asteetan

aurkezturiko euskaragaitasunik ez duten ikasleentzako eskolaz kanpoko eskaintza urritik aurrera Zubietan ere martxan jartzera doazela berri eman zuen.




IKUSI-MAKUSI
Zer ikusten du piratak bere kataloxatik? Aukeratu irudi ona.




Zeeer?!? Zer ari da pentsatzen balea? Eman marrazkitxo bakoitzari dagokion hizkia eta asmatuko duzu.

Horretarako, erabili beheko hizki-marrazki hiztegia.





HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



Engainagarriak

Txanpon eder hau goiko altxorretik ateratu da. Ondako puskei erreparatu eta esan zeintzuk diren anak eta zeintzuk imitazio txar batekoak.





ALTxorren bila

Bost itsaslapur hauek sekulako altxorra dute zain, baina bik besterik ez dute bidea aurkituko. Nortzuk?


Sudokua

Loroek hitzun fama dute, ezta? Bete fitzazu hatsuneak HIZTUN hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (H, I, Z, T, U eta N). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta arean bakoitzeko.

Z	U	T	I	H	N
N	I	H	Z	U	T
H	T	Z	U	N	I
I	N	H	T	Z	
T	H	I	N	Z	U
U	Z	N	T	I	H


Baiez Hamabi!

Horra hemen bi itsaslapur. Bata bestearen ispilu direla ematen du baina ez dira erabat berdinak. Aurkitu bien arteko aldeak. 12 dira guztira.



Bikotea

Loro hauen artean bat bi aldiz ageri da. Zein da?



Plazan Bazan 10/11 orrialdeetako soluzioak.

"Futbola lanbide bat da eta ikasten jarraitzeko aukera ematen dit"

XABI CARDENAS FUTBOLARIA

Txikitatik nabarmendu zen futboleant eta Realaren deia jaso zuen. Real Unión, Osasuna edota Avilés taldeetan ere jokatu du. Portugaleten aritu da azken denboraldian eta bertan segiko du.

Futbol profesionalean urteak daramatza Xabier Cardenas herritar gazteak. Usurbil FTn lehen urratsak ematen hasi bezain pronto, Realaren deia jaso zuen eta ordutik modu profesionalean ibilbidea osatzen ari da hainbat taldetan. Portugaleten jokatzeko du egun. NOAUA!rekin izan da bere ibilbidearen nondik-norakoak ezagutarazteko.

Beste kirol jarduerak batzuetan ere arituko zinen txikitik. Noiz egin zenuen futbolaren aldeko hautua? Noiz hasi zinen futbola serio hartzen?

Txikitatik asko ibili naiz futboleant. Herrian badaude pilotan ibiltzen direnak, beste asko eskubaloian ere bai, baina nire adinekoak futbolzaleagoak izan gara beti. LHn eskubaloian eta futboleant ibiltzen nintzen, eta ondoren, futbolaren alde egin nuen. DBH2n Realaren deia jaso nuen eta kirol horretan hasi nintzen burubelari. Betidanik gustatu izan zait.

Txikitatik nabarmendu zinen futbolari gisa. Orain ari zaren mailan, egunero entrenatzen al duzue? Oso lotua da futbola?

Ni egon naizen talde guztietan ia egunero entrenatu izan dugu. Asteburuan partida izaten dugunez, larunbatean jokatzeko tokatzen bazaigu, igandea libratzen dugu, eta alderantziz. Normalean, astean bi egun izaten ditugu



Denboraldi berrian ere, Portugalete futbol taldean ariko da. NOAUA

libre, eta beste batzuetan egun bakarra. Hala ere, bi ordu entrenatzen ditugu goizetan, eta hortik aurrera egun osoa libre izaten dugu.

Futbolari izateaz gain, ikasketak egiten ari zara?

Bai, psikologiako laugarren mailan nago. Datorren urtean amaituko ditut ikasketak. Online ari naiz egiten ikasketak nire bizimoduarekin klaserara joatea zaila delako, eta

talde askotan ibili naizelako. Psikologia klinikoa asko gustatzen zait eta kirol psikologia ere badaukat buruan. Kirol psikologian aukerak izango nituzke ziur aski, baina orain-

"DIRUA TARTEAN DEN LEKU GUZTIETAN DAGO LEHIAKORTASUNA"

dik ez dudanez bietako bat aukeratu behar, aurrerago ikusiko dut zer egin.

Txapelketa garaian egoera fisiko onean egon behar da. Zu ari zaren mailan aritzeko, asko zaindu beharra dago, ezta?

Bai. Niri Realean hasi nintzetik datorkidan dinamika bat da. Partiduetara ahalik eta egoera fisikorik onenean iristeko behar bezala elikaturta egon behar duzu eta egunero entrenatu. Deskonektatzea zaila da lan honetan. Dieta normal bat egiten dut, baina zainduta. Dietista batekin aritzen naiz ni, baina gustatu egiten zaidalako zaintzea. Pauta batzuk ematen dizkizute kirolean ari zarenean, eta gutxi gorabehera badakizu zer jan behar duzun. Dietistarekin ibiltzen naiz gustatzen zaidalako, baina hura gabe ere moldatuko nintzen. Zaintzea gustatzen zait.

Portugaleteko jokalaria zara gaur egun. Lehiakortasun handia dago zuen taldean ala, alderantziz, lagun giroan entrenatzen al duzue?

Dirua tartean dagoen leku guztietan lehiakortasuna dago. Talde batzuetan egon naiz denok jokatzeko genuena edo gutxiago jokatu izan dudana. Denok nahi dugu jokatu eta hala izan ez denean, ez dugu nahi inork gaizki begiratzea. Entrenatzaileak erabakitzen du nork jokatzeko duen eta norke, eta horretan ondokoak ez dauka errurik. Entrenatzean beti izaten dugu lehia hori, baina aldageletatik kanpo oso harreman ona izan dut beti denekin. Entrenatzaileekin ere denetarikoa tokatu zaizkit. Jokatzeko aukera gehiago ematen dizunarekin normalean harreman hobea izaten duzu, eta ia jokatzeko aukerarik ematen ez dizunarekin gutxiago.

25 urte dituzu eta Berion, Calahorran, Real Unionen, Osasunan eta Avilés bezalako taldeetan

→ **jokatu duzu. Oso gaztea zara. Akaso jarraikortasuna falta izan zaizu?**

Portugaleten urte terdiko kontratua sinatu nuen lasaitasun gehixeago izateko. Ikasten ari naiz eta mugitzen ibiltzeak ez nau gehiegi molestetzen, ibiliko nintzateke horrela gehiago ere. Kontratu laburrak izanda, motibatu ere egiten nau esperientzia ezberdinak bizitzeko aukerak dena ondo doanean, baina estresa ere badakar berarekin. Portugaletekoa gustura hartu nuen horregatik. Urtebete neraman jolastu gabe eta urte eta erdiko kontratua eskaini zidaten, eta momentu horretan lasaitasun hori behar nuen eta eskertu nuen horrelako aukera bat. Hurrengo denboraldira arte egongo naiz Portugaleten.

Urte batzuk egin dituzu futboleant. Zein izan da orain arte lortu duzun balentriarik handiena?

Oroitzapen politak ditut balentriak baino gehiago. Espainiako txapelketa bat irabazi nuen Euskadiko selekzioarekin Realean nengoela. Oso oroitzapen goxoa dut. Gainontzean, badituz hobeto jokatuak partidak edo okerrago jokatuak, baina ez daukat partida esanguratsu berezirik balentriatzat jotzen dudarik.

Zu aritzen zaren mailan aritzeko gaitasun bereziak behar dira. Baina prestaketa lana ere oso inportantea izango da. Zure ibilbidean, zer nolako garrantzia izan dute entrenatzaileek?

Hobekuntza gehien formatuak urteetan nabaritzen da nire ustez. Ezberdina da 13 urtetatik Realean egotea non baliabide gehiago izango dituzun eta hobeto formatuak profesionalen eskuetan egongo zaren edo bestelako talde txikiago batean egotea horrenbeste baliabide ez dituen. Horrek eragin handia duela esango nuke nik, baina bakoitzaren motibazioa eta



"Portugaleten urte t'erdiko kontratua eskaini zidaten eta une horretan lasaitasun hori behar nuen". ENLOZU FOTOGRAFIA.

gogoia ere ezinbesteko osagaiak dira. Kalitate handia duen jende asko dago, hori argi dago, baina zeure partetik ez baduzu behar besteko esfortzurik egiten zaila da hobetzea. Realean egin nituen lehen bi urtetan Iñaki Satrustegi izan zen nire entrenatzailea eta hark asko lagundu zidan. Usurbilgo taldean onena izatetik Realean iritsi nintzen, eta bertan oso jokalaririk onak aurkitu nituen. Hasieran ez nuen sinisten horren ona nintzenik, eta hark ona nintzela askotan esaten zidan eta hori sinistu behar nuela. Entrenamenduetan asko eskatzen zigun eta exigentzia horrek niri motibazioa ematen dit.

Gogoan duzu Realak entrenatzerara deitu zintuen egun hura?

Jakina. Usurbilen nengoan entrenatzen eta Manu Urbietak paper bat eman zidan Realean gonbidapenarekin. Usurbilen jokatzeko nuenean Realak gu baino maila bat gorago jokatzeko zuen eta salto handia izan zen hura. Ez nuen batere espero deitzerik. Hasieran uste nuen txantxa

"REAL SOCIEDADEN DEIA JASO NUENEAN, HASIERAN TXANTXA ZELA USTE NUEN"

bat zela eta adarra jotzen ari zitzazkidalda. Ez zen txantxa izan, ordea. Ondoren, bi urte egin nituen probetan eta bigarren urte hartan taldean hartu ninduten.

Usurbildar askorekin jokatu duzu Usurbil FTtik kanpo?

Txustarekin ibili nintzen Real Unionen eta Iñigo Ibargoienekin nabil orain Portugaleten.

Usurbildik kanpo urte batzuk egin dituzu. Etxera buelta gertu ikusten duzu ala oraindik kanpoko taldeetan ikusten duzu zure burua?

Nirekin Calahorran ibilitako bat Lituaniar ari da jokatzeko orain. Lehen horrelako esperientziak bizitzea izugarri gustatuko zitzaidan, baina orain ez daukat horren argi. Orain gehiago gustatuko litzaidake Espainian ibiltzea Andaluzian edo Madrilen, adibidez.

Hala ere, kanpoko talderen batek deituko balu eta kontratu on bat eskaini, joango nintzateke urrutirago ere. Lehen ilusio gehiagorekin agian, baina etor liteke.

"FUTBOLAK LEKU ASKO BISITATZEKO AUKERA EMAN DIT ETA GUSTURA NABIL MARTXA HONETAN"

Eta etorkizunean, lehiatik erretiratzeko zarenen, kirol munduari lotuta ikusten duzu zure burua?

Gradu ikasketak eta masterra amaitu arte behintzat ez naiz erretiratuko. Lan bat da eta ikasten jarraitzeko aukera ematen dit. Leku asko bisitatzeko aukera ere eman dit eta gustura nabil martxa honetan. Behin maila hauetatik erretiroa hartuta futboleant jarraituko dudala uste dut.

Laburrean

Zenbaki bat: 6.

Kolore bat: Beltza.

Kirolari bat: Mikel Aranburu futbol jokalaria.

Futbol zeilari bat: El Sardinero, Santanderko futbol zelaia.

Film bat: 'As Bestas' (Rodrigo Sorogoyen).

Liburu bat: 'Pensar rápido, pensar despacio' (Daniel Kahneman).

Abesti bat: Reggetoia, orokorrean.

Sare sozial gustukoa?: Twitter eta Instagram.

Usurbilgo txoko bat: Kalejar.

Santixabelak ala Sargardo Eguna? Sargardo Eguna.

Oporretarako toki bat: Cadiz.



Agerraldi jendetsua egin zuten uztailearen 7an frontoian, euskararen aurkako azken eraso salatzeko. NOAUA!

Euskara hutsean jardutea debekatu diete udalei

Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren azken erabaki hau irmoki salatu zuten uztailearen 7an frontoian.

Presazkoa, urgentziazkoa zen uztailearen 7rako Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) Usurbilgo frontoian deitutako agerraldia. Udalerrri euskaldunetako 125 alkate eta hautetsi batu zituen hitzorduek hainbat herrikideez gain, egoe-raren larritasunaren adierazle. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak bezperan ezagutzera emandako epaia "kolpe handia" izan zela adierazi zuten, "bereziki udalerrri euskaldunontzat".

Euskadiko Toki Erakundearen Legearen 6.2 artikulua balio-gabetu zuen aipatu auzitegiak.

"Arau horrek aukera ematen die udalei erakunde barruko idatzizko dokumentuak erabat euskaraz egiteko, betiere hizkuntza-eskubideak urratu gabe". Honenbestez, epai honen artikulua hainbat artikuluetan eta euskara hutsean jardutea eragotzi die Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalei. Auzitegi Konstituzionalaren erabakia "inolaz ere onartu ezin dugun atzerakada" gisa definitu zuten. Tartean ziren, besteak beste, Usurbilgo udalbatza osatzen duten EHBildu eta EAJ-ko udal ordezkariak, Agurtzane Solaberrieta alkatearekin batera.

Baita Buruntzaldeako gainerrako udaletako hainbat ordezkari ere, aipatu moduan, Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko beste hainbat alkate eta hautetsirekin batera.

6.2. artikulua

Epai honen jatorrian VOX dagoela azaldu zuten alderdi ultraeskuindar horrek duela bi urte, 2019an onarturiko dekretu horren aurka EAeko Auzitegi Nagusian aurkezturiko salaketa. Auzitegi horretako epaileek inkonstituzionaltzat jo eta Espainiako Auzitegi Konstituzionalera igorri zuten kasu hau. Madrilgo auzitegiak Udal Legearen 6.2 artikulua balio-gabetu du, hizkuntza-eskubideak urratzen direla argudia-

ELKARLANEAN "LEGE-ESPARRU ERABERRITUA" GALDEGIN DUTE

tuta. Udalek euskara lehenes-tea "supremacia exorbitante" gisa definitu du. Onartezintzat jo dute udalerrri euskaldunetako alkate eta hautetsiek. Aldiz, halakorik egiten dela ukatu egin zuten. "Hizkuntza-eskubideak UEMAko udaletan errespetatzen dira gehien", ziurtatu dute. Epaia ekar ditzakeen ondorioak ere ahotan hartu zituzten. "Udalei esku-mena kendu zaien beren barne-funtzionamenduan hizkuntzen erabilera arautzeko, eta muga argi bat ezarri: administrazioan, gaztelaniaren makuluarekin soilik erabil daitekeela euskara". Bestela adierazi nahi izan zuten moduan, "gaztelaniaz mugarik gabe egin daiteke; udalek euskaraz egiteko aukera izatea, zinegotzien hizkuntza-eskubideak errespetatuta, hori supremazia dela dio auzitegiak".

"Ez dugu atzerapausorik onartuko"

Halako epaiak argitaratzea halere, ez dute kontu berritatu jo. UEMAko udalek aurrez gai honi lotutako hainbat arazo izan dituzte. "Aktak euskaraz egiteko debekuak, udalak UE-MAn sartzeko trabak... Epaitegien ezpatapean egin genituen urteak". Oztopo eta debeku guztiok norabide berean kokatu dituzte. "Euskara sustatzeko lege-zimendua higitzen ari dira auzitegiak". Horregatik, atzerapausorik ez dutela onartuko ziurtatu zuten. Epaia onorio praktikoa aztertuko dituztela iragarri, Euskalginguzaren Kontseiluak azaroaren 4an Bilbon deitutako manifestazioarekin bat egin eta "lege-esparru eraberritu bat" elkarlanean eraikitzeko deia egin zuten.

Atxi
 PATRIKAZI
 latorrea
 · bazkariak EGUNERO
 · afariak ostirala eta larunbata
 © 943 362725 · © 688 690 361

txirriStra
 TABERNA
 · PLATER KONBINATUAK
 · BOKATAK · PINTXOAK
 Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbizuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 2020an berritua. 670 410 273.

Mutil batentzako pisu bila nabil. 622 925 562.

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bitziteko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako: 636 711 514.

SALGAI

Izar-etxe beheko etxea salgai. 85 metro koadro inguru eta txokoa ditu. Informazio gehiago Elizalde inbiliarian 943 35 35 34

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera deitu).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. Telefono zenbakia: 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Astean pare bat arratsaldez adineko emakume bat zaintzeko pertsona baten bila nabil. 653 018 132.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabiltza. 12:00-14:00, astelehenetik ostiralera. Ko-

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

txea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa izango da. 617792736

Laukote okindegian, astebukaeretan lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171

Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

Sukaldari bat behar dugu Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzan auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? 680483164.

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, Olarrondon. 626 686 036.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten esperientzia. 602 082 583.

Emakume bat, interna bezala lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen: 602 586 014.

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

BESTELAKOAK

Etxean egindako gozogintza enkarguz eskatu dezakezu @deliciascreativasdey / 624356763 (Deynis)

Paseoko bizikleta bat daukat salgai. Ez dauka markarik. Pertsonalizatuta egindako bizikleta da eta egoera oso onean dago. 644 619 358.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 13	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Ostirala, 14	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Larunbata, 15	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 16	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Astelehena, 17	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Astearte, 18	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Asteazkena, 19	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Osteguna, 20	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 21	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 22	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Igandea, 23	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIOZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

ZORION AGURRAK



Zorionak Lide!!

11 urte egin zenituen uztailaren 6an, zorionakkkk etxekoan partez.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitarteok; hiru bide dituzu NOAUaren bidez zorientzeko:

Internet eta papera

noaua.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://noaua.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta dagokion NOAUA astekarian. Oharra: astelehen arratsaldetik aurrera iristen direnak hurrengo astean plazaratuko ditugu.

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria/auzoa, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz NOAUaren bulegora (Bordaberri 3, behe) edo deitu 943 360 321 telefono zenbakira.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 14

USURBIL 'Sagarrondotik Sagardora' ikastaroa

Sagarrondotik Sagardora ikastaroko "Fruitu arbolen udako edo begiko txertaketa" saioa. Txertaketa praktikak bertan egingo dira.

Sarrerak: aldeaz aurretik usurbilkultura.eus plataforman edo alkartasuna.eus atarian.

15:30-18:30 *Potxoenean.*

USURBIL Agerraldia

Urriaren 13tik 15era Usurbilen egingo den Euskal Herriko Neska* Gazteen Baterajotzea jardunaldiaren herri aurkezpena.

19:30ean *Mikel Laboa plazan.*

LARUNBATA 15

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 3 eurotan (18 urtetik beherakoek doan). Informazio gehiago: 650usurbilbizi.eus

12:00-13:00 *Sutegin.*

IGANDEA 16

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 3 eurotan (18 urtetik beherakoek doan). Informazio gehiago: 650usurbilbizi.eus

12:00-13:00 *Sutegin.*



Igande honetako bisita gidatuan, Zumeta Arte Estudioa ezagutzeko aukera izango da. Usoa Zumetak emango ditu estudioari buruzko azalpenak.

Usurbilgo altxorak ezagutzeko aukera berri bat

Usurbilgo kultur ondarea ezagutzeko aukera bikaina asteburuetan 'Usurbil Museo Irekia' bisita gidatuarekin. Apirilean hasi ziren astebukaeretan herriko ondarea ezagutzeko bisita gidatuak egiten. Astebukaera honetan beste bi aukera izango dituzue.

Usurbil beti izan da Euskal Herriko kultur-gune erreferentzialetako bat eta bere lekua irabazi du Euskal Herriko kulturaren mapan. Kallean, lehengo zein oraingo izen handiko sortzaileen lanak eta ondare aztarnak daude nonahi. Ondare hori ezagutzeko aukera izango da astebukaera honetan.

Gainera, gida baten laguntzaz ezagutu ahalko dituzu artelan hauek guztiak ordu-beteko bisita gidatuan.

Uztailaren 15 eta 16ko bisita gidatuak

- Orduetgia: 12:00-13:00.
- Abiapuntua: Sutegi.
- Hizkuntza: Larunbateko bisita gaztelaraz egingo da. Igandekoa euskaraz.
- Oharra: Igandean Zumeta Estudioan amaituko dute bisita. Bertan, Usoa Zumetak emango ditu azalpenak.
- Izen-ematea eta informazio osagarria: 650usurbilbizi.eus web orrialdean.

Pentsiodunen deialdia

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua mobilizaziorako deia egin du larunbat honetarako. 12:00etan abiatuko da Donostiako Alderdi Ederretik. 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, genero-arrakalak ezabatu edota alarguntasunaren %100 bermatzea eskatuko dute, "berdin dio nork gobernatu, pentsioak defendatu" aldarripean.

Elkarretaratzea kalitatezko osasungintza publikoaren alde

Donostialdeko Herri Plataformakoek, Olatu Txuria Kook eta D.O.P.A.koek elkarretaratzea deitu dute larunbat honetarako, uztailak 15, eguerdiko 12:00etan Donostiako Amara Berriko Osasun Zentroan, murrizketen aurka eta kalitatezko osasungintza publikoaren alde.

Kima
MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA
· MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza · segurtasun beirak · ispiluak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

3 MODU DITUZU BAZKIDE EGITEKO:



Beheko inprimakia
bete eta bulegora
ekarritz



Webgunearen bidez
noaia.eus/bazkidetu



Telefonoz
943 360 321

Izena

Abizenak

Nortasun agiria

Helbidea

Heria

Posta kodea

Telefonia

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia (IBAN)

Bazkidetza mota

Arrunta (40 €)

<30 urte (25 €)

Jaiotze data

noaia.eus



noaia



HARTU DUZGU ERRONKA!



**Edertu
zaitez!**

LASER

- Ilea behin betiko ezabatzen du
- Azal beltzarantetan egin daiteke

- Eraginkorra
- Segurua


ESKANTZA OFERTA · OFERTA · OFERTA · OFERTA · OFERTA
-%10

GORPUTZA

40 36€

AURPEGIA

20 18€



eskantza 15 egunez

snar
ESTETIKA

@enarestetika · enarestetika.com · 943 571 680
620 852 875 · Muna Lurra 2, behea, Usurbil

Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 688 75 96 96

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

**BERRIA!
GOLD LOKATZAK**

secretos™
del agua

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

Elexpe
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

GOLDWELL
ELUMEN

mistoa

Arkeneko produktu eta teknikak!

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951